DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordea
Comisión de Servicios a las Personas

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

## 9. AKTA

**Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordea**

**Batzar mota:** Ohikoa

**Eguna:** 2024-03-11

**Ordua:** 11:55

**Tokia:** Loretope Aretoa

**Bitarteko batzordeburua:** Markel Ormazabal Gaztañaga

**Etorritakoak:**

**Batzordeko kide diren zinegotziak:**

Maria Jesus Idoeta Madariaga

Martín Ibabe Eceiza

Juan Ramón Viles Mitxelena *(12:17an atera da bileratik eta 12:19an sartu da)*

Juan Karlos Izagirre Hortelano

Izar Hernando Ibero

Iñaki Gabarain Gaztelumendi *(12:11n atera da bileratik eta 12:17an sartu da)*

Ane Oyarbide Ochoa *(12:15an bileratik atera da eta 12:19an sartu da)*

Vanessa Vélez de Pablos

Arantza González García

**Beste zinegotzi batzuk:**

Itziar Iturri Arrazola *(12:05ean atera da)*

Eneko Goia Laso, Alkatea *(12:05ean atera da)*

Ana Lopez Loiarte *(12:05an sartu da eta 12:15an atera da)*

Carlos Garcia Hernandez *(12:17an sartu da)*

## ACTA N.º 9

**Comisión de Servicios a las Personas**

**Sesión:** Ordinaria

**Día:** 11-03-2024

**Hora:** 11:55

**Lugar:** Sala Loretope

**Preside en funciones:** Markel Ormazabal Gaztañaga

**Asistentes:**

**Concejales y concejalas miembros de la Comisión:**

María Jesús Idoeta Madariaga

Martín Ibabe Eceiza

Juan Ramón Viles Mitxelena *(se retira a las 12:17 h y se reincorpora a las 12:19 h)*

Juan Karlos Izagirre Hortelano

Izar Hernando Ibero

Iñaki Gabarain Gaztelumendi *(se retira de la sesión a las 12:11 h y se reincorpora a las 12:17 h)*

Ane Oyarbide Ochoa *(se retira de la sesión a las 12:15 h y se reincorpora a las 12:19 h)*

Vanessa Vélez de Pablos

Arantza González García

**Otros/as concejales/as :**

Itziar Iturri Arrazola *(se retira a las 12:05 h)*

Eneko Goia Laso, Alcalde *(se retira a las 12:05 h)*

Ana Lopez Loiarte *(se incorpora a las 12:05 h y se retira a las 12:15 h)*

Carlos García Hernánez *(se incorpora a las 12:17h)*

12447n II

**Idazkaria:** Ane Miren Irizar González, Idazkariak eskuordeturik.

* * * *

Gai zerrenda lantzeari hasi aurretik, Batzordeburuak gogorarazi du, aurreko saioan aipatu bezala, batzordeko kideetako batek aldez aurretik bere absentzia ezagutzen badu, eta erantzuna idatziz igortzeko asmoa duenean, saioa burutu aurretik beharko lukeela.

* * * *

BATZORDEBURUAK bilkura hasi dela adierazi ondoren, ondoko GAI-ZERRENDA hau lantzeari ekin diote:

**1.- 2024ko otsailaren 12an izandako bileraren akta irakurri eta onartzea, ontzat joz gero.**

Bozketa egin eta aho batez onartu da 8. akta, 2024ko otsailaren 12an egindako bilerari dagokiona.

* * * *

Bertaratutako guztien adostasunaz, batzordeburuak gaien ordena aldatzea erabaki du, eta ondoren 9. gaia aztertuko da.

* * * *

**9.- Interpelazioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, errugbi zelaiaren proiektua dela eta.**

Itziar Iturri andreak hurrengo interpelazioa azaldu du:

"Itziar Iturri Arrazolak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, errugbi zelaiaren proiektuari buruzko interpelazioa egiten dio Eneko Goia Laso alkate jaunari, hari buruzko azalpenak Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean eman ditzan.

JUSTIFIKAZIOA

**Secretaria:** Ane Miren Irizar González, por delegación de la Secretaria General.

* * * *

Antes de proceder a desarrollar el Orden del Día, el Presidente recuerda que tal y como se mencionó en la sesión anterior, cuando uno de los miembros de la Comisión conoce previamente su ausencia y tiene intención de remitir la respuesta por escrito, debería a remitirla antes de la celebración de la sesión.

* * * *

Declarada abierta la sesión por la PRESIDENCIA, se pasa a desarrollar el siguiente ORDEN DEL DÍA:

**1.- Lectura y aprobación, si procede, del acta de la sesión celebrada el día 12 de febrero de 2024.**

Se aprueba por unanimidad el acta número 8, correspondiente a la sesión celebrada el día 12 de de febrero de 2024.

* * * *

Con la conformidad de todos los y las presentes, el Presidente decide alterar el orden de tratamiento de los asuntos y a continuación se pasa a tratar el asunto n.º 9.

* * * *

**9.- Interpelación, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el proyecto deL campo de rugby.**

La Sra. Iturri Arrazola presenta la siguiente interpelación:

"Itziar Iturri Arrazola, concejala del Grupo Municipal EH BILDU, al amparo del artículo 135 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente interpelación al sr. alcalde, Eneko Goia Laso, relativa al proyecto del campo de rugby, para su tratamiento en la Comisión de Servicios a la Personas.

JUSTIFICACIÓN

Azken asteetan zehar hainbat albiste argitaratu dira prentsan Biarritz Olympique errugbi taldeak Donostiako Udal Gobernuari luzatutako proiektuaren inguruan.

Urtarrileko batzordeetan, Elkarrekin Donostiak planteatutako galderei erantzunez, alkate jaunak esan zuen ez zegoela ez aurrekonturik, ez proiekturik, ezta aurreproiekturik ere, Biarritz Olympique taldearen proposamenean.

EH Bildu udal taldeko ordezkaritza bat Biarritz Olympique taldeko zuzendaritzarekin bildu da eta bertan esan digute haiek aurkeztutako proiektua udal talde politiko guztiekin partekatzera konprometitu zela alkatea.

Bestalde, prentsak argitaratu du alkateak adierazi zuela Donostiako EH Bilduk proiektu hau baztertzen zuela nahiz eta ordura arte EH Bilduk ez zuen eginda posizionamendu publikorik gai horretaz.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako interpelazio hau egiten du:

– Zer dela eta ez du Udal Gobernuak Biarritz Olympique errugbi taldearen proiektua gainerako udal taldeekin partekatu?

– Zer dela eta esan du alkateak Donostiako EH Bildu taldea proiektuaren aurka zegoela, ordura arte EH Bilduk posizionamendu publikorik egin ez bazuen?

Donostian, 2024ko martxoaren 1ean

Itziar Iturri Arrazola
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Itziar Iturri andreak eta Eneko Goia jaunak hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

(12:05ean Itziar Iturri andrea eta Eneko Goia bileratik atera dira; Ana Lopez andrea bilerara sartu da)

* * * *

Bertaratutako guztien adostasunaz, batzordeburuak gaien ordena aldatzea erabaki du eta 2. gaia amaieran aztertuko da.

A lo largo de las últimas semanas se han publicado en prensa varias noticias sobre el proyecto que el equipo de rugby Biarritz Olympique había propuesto al Gobierno Municipal de San Sebastián.

En las comisiones de enero, respondiendo a las preguntas planteadas por Elkarrekin Donostia, el sr. alcalde manifestó que la propuesta del grupo Biarritz Olympique no tenia ni presupuesto, ni proyecto ni anteproyecto.

Una delegación del grupo municipal EH Bildu se ha reunido con la dirección del Biarritz Olympique y nos han comentado que el alcalde se comprometió a compartir el proyecto presentado por ellos con todos los grupos políticos municipales.

Por otra parte, la prensa publicó que el alcalde manifestó que EH Bildu de San Sebastián rechazaba este proyecto aunque hasta entonces EH Bildu no había realizado un posicionamiento público sobre este asunto.

Es por ello por lo que la concejala abajo firmante presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

– ¿Por qué el Gobierno Municipal no ha compartido el proyecto del Biarritz Olympique con el resto de grupos municipales?

– ¿Por qué motivo el alcalde ha afirmado que el grupo EH Bildu de Donostia estaba en contra del proyecto si hasta entonces EH Bildu no había realizado un posicionamiento público?

San Sebastián, 1 de marzo de 2024

Itziar Iturri Arrazola
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Intervienen la Sra. Iturri Arrazola y el Sr. Goia Laso, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

(A las 12:05 h, la Sra. Iturri Arrazola y el Sr. Goia Laso se retiran de la sesión; la Sra. López Loiarte se incorpora)

* * * *

Con la conformidad de todos los y las presentes, el Presidente decide alterar el orden de tratamiento de los asuntos y el asunto nº 2 será tratado al final de la sesión .

* * * *

**3.- Interpelazioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Memoria Historikoaren Aholku Batzordea deitu ez izanari buruzkoa.**

Markel Ormazabal jaunak gai hau erretiratu egiten du, berriki ospatu det Giza Eskubideen Batzordean jorratu delako.

**4.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Terrorismoari buruz kontzientziatzeko gazteentzako programa bat sortzeari buruz.**

Vanessa Velez andreak hurrengo interpelazioa irakurritzat eman du:

“Vanessa Vélez De Pablos Talde Popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluaren babesean, INTERPELAZIO hau aurkezten dio Eneko Goia Laso alkateari, terrorismoak ekarri zuenaz kontzientziatzeko gazteentzako programa bat sortzeari buruz, bakearen eta tolerantziaren kultura finkatzen eta indarkeriaren erabilera deslegitimatzen laguntze aldera, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

2017an, Deustuko Unibertsitateak euskal ikasleak ardatz zituen azterlan bat egin zuen, Unibertsitateko gazteek Euskadin bizi izan den terrorismoari eta giza eskubideen urraketei buruz dakitena eta duten diskurtsoa izenekoa. Mila unibertsitariotik ia erdiak, % 47k, esan zuen ez zekiela zein zen Miguel Angel Blanco, Ermuko zinegotzia.

Beharrezkoa da gure gazteei terrorismoak zer ekarri zuen transmititzea, balio demokratiko eta etikoak babesteko eta zabaltzeko.

Hori dela eta, interpelazio hau aurkezten dugu:

INTERPELAZIOA

1 Gobernu-taldeak zergatik ez du sustatzen Donostiako ikasleek Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Zentroa bisitatzea?

2. Udal Gobernuak ba al du terrorismoak ekarri zuenaz kontzientziatzeko gazteentzako programa bat egiteko asmorik, bakearen eta tolerantziaren kultura finkatzen eta indarkeriaren erabilera deslegitimatzen laguntzeko?

* * * *

**3.- Interpelación, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la no convocatoria de la Comisión Asesora de la Memoria Histórica.**

El Sr. Ormazabal Gaztañaga retira este punto, ya que ha sido tratado en la Comisión de Derechos Humanos celebrada recientemente.

**4.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la creación de programa para jóvenes de concienciación sobre el Terrorismo.**

La Sra. Vélez de Pablos da por leída la siguiente interpelación:

“Vanessa Vélez De Pablos, Concejala del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Servicio a las Personas, sobre la creación Programa para jóvenes de concienciación sobre lo que supuso el Terrorismo, que contribuya a asentar una cultura de paz y tolerancia y deslegitimar el uso de la violencia.

JUSTIFICACIÓN

En 2017 un estudio de la Universidad de Deusto, centrado en el alumnado vasco bajo el título "Conocimiento y discursos de la población universitaria sobre terrorismo y vulneraciones de derechos humanos en Euskadi". De mil universitarios, casi la mitad, el 47%, dijo no saber quién era el concejal de Ermua, Miguel Angel Blanco.

Es necesario que transmitamos a nuestros jóvenes lo que supuso el terrorismo para preservar y difundir los valores democráticos y éticos.

Por esos motivos presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el Equipo de Gobierno no fomenta que los escolares donostiarras visiten el Centro Memorial de las Víctimas del Terrorismo?

2. ¿Tiene el Gobierno Municipal la intención de realizar un Programa que para jóvenes de concienciación sobre lo que supuso el Terrorismo, que contribuya a asentar una cultura de paz y tolerancia y deslegitimar el uso de la

3. Erantzuna baiezkoa bada, noiz eta nola?

4. Ezezkoa bada, zergatik?

Donostia, 2024ko martxoaren 1a

Vanesa Vélez De Pablos
*PP udal taldeko zinegotzia*".

Ana Lopez eta Vanessa Velez andreek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

*(12:11n Iñaki Gabarain jauna bileratik atera da*

* * * *

Batzordeburuak 5., 6. eta 8. gaiak idatziz erantzunak izango direla adierazi du, Cristina Lage andrearen absentzia dela eta. Aldi berean, 7. gaia erretiratua izan zela gogorarazi du.

* * * *

**5.- Interpelazioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Indarkeria matxistaren aurrean erantzuna emateko protokoloaren betetze mailaz.**

Idatziz erantzungo da.

**6.- Interpelazioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Morlanseko Amara Berri eskolako patioari eragingo dioten obren eta patioa estaltzearen ingurukoa.**

Idatziz erantzungo da.

**7.- Interpelazioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, II. Errepublika defendatu zuten fusilatu eta errepresaliatuen omenez Saguesen zegoen plakari buruzkoa.**

Gai hau erretiratua izan zen.

**8.- Interpelazioa, Elkarrekin Donostia taldeak**

violencia?

3. En caso afirmativo, ¿cuándo y de qué manera?

4. En caso negativo, ¿cuales son las razones?

En San Sebastián, a 1 de marzo de 2024

Vanesa Vélez De Pablos
Concejala Grupo Municipal PP".

Intervienen las Sras. López Loiarte y Vélez de Pablos en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(El Sr. Gabarain Gaztelumendi se retira de la sesión a las 12:11 h)*

* * * *

El presidente expone que los asuntos n.º 5, nº6 y n.º 8 serán contestados por escrito, debio a la ausencia de la Sra. Lagé Manich. Recuerda además, que el asunto n.º 7 fue retirado.

* * * *

**5.- Interpelación, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el grado de cumplimento en el protocolo de respuesta ante la violencia machista.**

Se remitirá la respuesta por escrito.

**6.- Interpelación, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre las obras y cubrimento del patio que afecten al patio de la escuela Amara Berri en Morlans.**

Se remitirá la respuesta por escrito.

**7.- Interpelación, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la placa que había en Sagues a los fusilados y represaliados en la 2ª República.**

Este asunto fue retirado.

**8.- Interpelación, presentada por el Grupo**

**aurkeztua, Berdintasun Ordenantza dela eta.**

Idatziz erantzungo da.

*(12:15ean Ana Lopez andrea bileratik atera da)*

*(12:17an Iñaki Gabarain jauna eta Carlos García jauna bilerara sartu dira; Ane Oyarbide atera da)*

**10.- Galdera, EH BILDU taldeak aurkeztua, kale egoeran dauden edo bazterkeria egoeran dauden emakumeei bideratutako zerbitzuei buruzkoa.**

Izar Hernando andreak hurrengo galdera irakurritzat eman du:

“EH Bildu udal taldeko zinegotzi Izar Hernando Iberok, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 135. artikulua oinarri, kale egoeran dauden edo bazterkeria arriskuan dauden emakumeei bideratutako zerbitzuei buruzko galdera egiten dio Mariaje Idoeta Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi-ordezkariari, hari buruzko azalpenak ahoz eman ditzan Pertsonen Batzordean.

JUSTIFIKAZIOA

Udalak baditu kale egoeran dauden edo bazterkeria arriskuan dauden pertsonei eskaintzen zaizkien zerbitzuak, eta zehazki, baita zaurgarritasun egoera horietan egon daitezkeen emakumeei bideratutako zerbitzuak ere. Ordea, berriki izan dugu zerbitzu horietatik kanpo gelditu diren emakumeen berri, haurra haien kargu izanik ere kalean gelditu direnak, edota haurdun egonda kalean gelditu direnak.

Hori horrela, behean sinatzen duen zinegotziak honako galdera hauek egiten ditu:

– Zein dira Udalak kale egoeran dauden emakumeei bideratzeko dituen zerbitzuak? Zein eskaintza berezitu daude haurrekin dauden emakumeentzat? Eta haurrik ez duten emakumeentzat?

– Kale egoeran dauden pertsonei bideratutako aterpetxe eta pisuetan, zein egokitzapen daude emakumeek ere modu seguruan erabili ahal izan ditzaten?

– Zenbat emakume dira egun zerbitzu horien erabiltzaile? Zenbat emakume gelditu dira zerbitzu horietatik kanpo?

– Udalak dakiela, zenbat emakume daude

**Elkarrekin Donostia, relativa a la Ordenanza de Igualdad.**

Se remitirá la respuesta por escrito.

*(La Sra. López Loiarte se retira a las 12:15 h)*

*(A las 12:17 h se incorporan los Sres. Gabarain Gaztelumendi y García Hernández; la Sra. Oyarbide Ochoa se retira)*

**10.- Pregunta, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre los servicios dirigidos a mujeres en situación de calle o discriminación.**

La Sra. Hernándo Ibero da por leída la siguiente interpelación:

“Dña. Izar Hernando Ibero, concejala del Grupo Municipal EH Bildu, en base al artículo 135 del Reglamento Orgánico del Pleno, pregunta a la concejala delegada de Servicios Sociales, Dña. Mariaje Idoeta, sobre los servicios dirigidos a mujeres en situación de calle o en riesgo de exclusión, para su respuesta oral en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

El Ayuntamiento dispone de servicios para personas en situación de calle o en riesgo de exclusión y, en concreto, para mujeres que pueden encontrarse en estas situaciones de vulnerabilidad. Sin embargo, recientemente hemos tenido conocimiento de mujeres que han quedado fuera de estos servicios y que, aun teniendo hijos a su cargo o estado embarazadas, han quedado en la calle.

Es por ello por lo que la concejala que suscribe presenta las siguientes preguntas:

– ¿Cuáles son los servicios del Ayuntamiento para derivar a mujeres en situación de calle? ¿Qué servicios diferenciados se ofrecen a mujeres con hijos e hijas? ¿Y a mujeres sin hijos?

– En los albergues y pisos destinados a personas en situación de calle, ¿cuáles son las adaptaciones existentes para que las mujeres también puedan utilizarlas de forma segura?

– ¿Cuántas mujeres son usuarias actuales de estos servicios? ¿Cuántas mujeres han quedado fuera de estos servicios?

– Según la información que dispone el

Donostian kale egoeran?

– Zein balorazio egiten du Udal Gobernuak Donostian kale egoeran dauden emakumeei bideratutako zerbitzuen inguruan?

Donostian, 2024ko otsailaren 29an

Izar Hernando Ibero
H Bildu udal taldeko zinegotzia".

Maria Jesus Idoeta eta Izar Hernando andreek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

*(12:17an Juan Ramon Viles jauna bileratik atera da eta 12:19an sartu da)*

*(12:19an Ane Oyarbide andrea bilerara sartu da)*

Ayuntamiento, ¿cuántas mujeres están en situación de calle en San Sebastián?

– ¿Qué valoración hace el Gobierno Municipal de los servicios para mujeres en situación de calle en San Sebastián?

San Sebastián, 29 de febrero de 2024.

Izar Hernando Ibero,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Intervienen las Sras. Idoeta Madariaga y Hernándo Ibero, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(El Sr. Viles Mitxelena se retira de la sesión a las 12:17 h y se reincorpora a las 12:19 h)*

*(La Sra. Oyarbide Ochoa se reincorpora a las 12:19 h)*

**<u>11.- Bozeramaileen Batzordeak bidalitako ekimenak, baldin bada.</u>**

**<u>11.1.- Interpelazioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, herritarren parte hartzeko prozesuei buruzkoa.</u>**

Arantza Gonzalez andreak irakurritzat eman du interpelazio hau:

"Arantza González García Elkarrekin Donostia udal-talde mistoko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau aurkezten dio Gobernantza Ireki, Digital eta Kolaboratiboko zinegotzi ordezkari Ana Lópezi, herritarrek parte hartzeko prozesuei buruz, ZERBITZU OROKORREN BATZORDEAN azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den otsailaren 28an, 2024ko aurrekontu-proiektuaren eta udal-taldeek aurkeztutako zuzenketen aurkezpen publikoa egin zen osoko bilkuren aretoan. Aurkezpen horretan hiru pertsona izan ziren.

Ordenantza fiskalen aurkezpen publikoan pertsona bat egon zen.

Aurrerapenaren aurretik HAPOa aldatzeari buruzko informazio-saioan ere oso parte-hartze txikia izan zen.

**<u>11. Iniciativas remitidas, en su caso, por la Junta de Portavoces.</u>**

**<u>11.1.-Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa a los procesos de participación de participación ciudadana.</u>**

La Sra. González García da por leída la siguiente interpelación:

"Arantza González García, Concejala del grupo municipal mixto Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN, a la concejala de Gobernanza Abierta, Digital y Colaborativa, Sra. López, para su tratamiento en la COMISIÓN DE SERVICIOS GENERALES, relativa a los procesos de participación ciudadana.

JUSTIFICACIÓN

El pasado día 28 de febrero se llevó a cabo en el Salón de Plenos la presentación pública del proyecto de presupuesto de 2024 así como de las enmiendas presentadas por los grupos municipales. A esa presentación asistieron tres personas.

La presentación pública de las ordenanzas fiscales contó con la presencia de una persona.

La sesión informativa sobre la modificación del PGOU previa a su avance, contó también con muy poca participación.

Horrelako aurkezpen publikoetara hain donostiar gutxi etortzeak hausnarketa sakona eragin behar du aurkezpen horiek egiteko moduari buruz. Eta, ondorioz, aldaketak egin behar dira, herritarrek senti dezaten Udalean egiten denak guztioi eragiten digula eta gai publikoetan parte hartzea ezinbestekoa dela.

Ildo horretan, gure ustez, udal-politika herritarrengana gerturatzen saiatzeko modu bat izan liteke aurkezpen publikoak auzoka antolatzea eta horren berri zabal ematea.

Hori dela eta, hau da gure

INTERPELAZIOA

1. Udal-gobernuak zergatik ez du pentsatu aldaketak egitea eztabaidagai diren proiektuen aurkezpen publikoak egiteko moduan?

2. Ba al du asmorik gogoetarik eta aldaketarik egiteko donostiarrek aurkezpen publikoetan gehiago parte har dezaten?

Donostia, a 1 de marzo de 2024

Arantza González García
Elkarrekin Donostia udal-talde mistoko zinegotzia”

Maria Jesus Idoeta eta Arantza Gonzalez andreek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

**2.- Interpelazioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Urgull mendiko Guardaetxea eraberritzeko proiektuari buruzkoa.**

Markel Ormazabal jaunak irakurritzat eman du interpelazio hau:

“Jon Markel Ormazabal Gaztañagak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, INTERPELAZIO hau egiten dio Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako zinegotzi ordezkari Carlos Garcíari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean erantzun dezan.

JUSTIFIKAZIOA

2019ko uztailaren 30ean, Guardetxea behin-behinean itxi zuen Udal Gobernuak, eraikinean

La bajísima asistencia de los y las donostiarras a estas presentaciones públicas, debe llevar a una profunda reflexión sobre cómo se llevan a cabo. Y en consecuencia, a realizar modificaciones para que la ciudadanía sienta que lo que se hace en el Ayuntamiento nos afecta a todos y a todas, y que su participación en los asuntos públicos es imprescindible.

En este sentido, consideramos que una forma de intentar acercar a la ciudadanía la política municipal podría ser organizar presentaciones públicas por barrios, con amplia difusión de su celebración.

Es por ello, que realizamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Por qué razón el gobierno municipal no ha considerado hacer cambios en la forma en la que realiza presentaciones públicas de los proyectos a debate?

2. ¿Tiene previsto hacer alguna reflexión y algún cambio para aumentar la participación de los y las donostiarras en las presentaciones públicas?

Donostia, a 1 de marzo de 2024

Arantza González García
Concejala del Grupo Mixto Elkarrekin Donostia”

Intervienen las Sras. Idoeta Madariaga y González García, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**2.- Interpelación, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el proyecto de reforma de la Casa del Guarda del monte Urgull.**

El Sr. Ormazabal Gaztañaga da por leída la siguiente interpelación:

“Jon Markel Ormazabal Gaztañaga, concejal del grupo municipal EH BILDU, presenta, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, la siguiente INTERPELACIÓN al concejal delegado de Mantenimiento y Servicios Urbanos, Carlos García, para su tratamiento en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

El 30 de julio de 2019, el Gobierno municipal cerró provisionalmente la Casa del Guarda de

hainbat konponketa egin eta kudeaketarako lehiaketa publikoa aurkezteko. Prozesu hau modu ulergaitzean luzatzen ari da, ordura arte eraikinaren kudeaketaz arduratu zen Banda Bat elkarteko kideek salatu duten bezala. Areago, elkartearen hitzetan, 2020ko ekainean, eta larrialdi egoera amaitutakoan, Gazteria Sailak lanak hasteko paperak prest zeudela helarazi zien. Baina ia lau urte igaro diren honetan, lanak abiatu gabe eta Guardaetxeak jardunik gabe jarraitzen du.

Urgull, al objeto de acometer diversas reparaciones en el edificio y sacar a concurso público su gestión. Este proceso se está demorando de forma incomprensible, tal y como denuncian los miembros de la asociación Banda Bat que hasta entonces se encargaba de la gestión del edificio. Es más, según la citada asociación, en junio de 2020, la Sección de Juventud del Ayuntamiento les comunicó que la documentación estaba ya dispuesta para poder iniciar los trabajos, una vez finalizado el estado de alarma. Pero cuatro años después, las obras siguen sin iniciarse y la Casa del Guarda sigue sin actividad.

Aurreko agintaldian, azkenekoz 2022ko otsailean galdetu genuen obra horien egoerari buruz, eta jaso genuen erantzuna izan zen Parte Zaharra eta Urgull bera monumentu multzo izendatutako eremuan daudela, eta honenbestez, bertan egin beharreko edozein lanek, Guardaetxekoek bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ondarea Sailaren baimena behar dutela. Orduan oraindik baimena eman gabe zegoela esan zitzaigun. Azkenik, eta 2023ko urtarrileko udalbatzarrean gaia landu ondoren, zinegotzi ordezkariak adierazi zuen iazko aurrekontuetan lanak hasteko baimena lortzeko aurkeztu beharreko proiektua idazteko diru partida bat gordeta zegoela.

En febrero de 2022, se preguntó por última vez por el estado de estas obras, y la respuesta que se nos dio fue que tanto la Parte Vieja y como el propio monte Urgull se encontraban dentro de un área declarada conjunto monumental, por lo que cualquier obra a realizar en ésta, como por ejemplo las de la Casa del Guarda, requiere la autorización del Dirección de Patrimonio de la Diputación Foral de Gipuzkoa. También se nos dijo que todavía no se había concedido dicha autorización. Por último, y tras tratar el tema en la sesión plenaria de enero de 2023, la persona delegada del área manifestó que en los presupuestos del citado año se había reservado una partida destinada a la redacción del proyecto que era necesario presentar para obtener la autorización del inicio de las obras.

Iazko uztailean, agintaldiko lehen udal batzordeetan alegia, Guardaetxearen egoerari buruz galdetu genion Carlos García zinegotzi ordezkariari. Aurrez esandakoa baieztatu zigun; hala ere, ezin izan zuen azalpen gehiagorik eman, logikoa denez, kargua hartu berritan baitzegoen. Sei hilabete goiti igaro dira ordutik, eta eraikinak egoera berean jarraitzen du.

En julio del año pasado, en la primera comisión municipal de esta legislatura, nuestro grupo preguntó al concejal delegado, Carlos García, sobre la situación de la Casa del Guarda, quien nos confirmó lo anteriormente señalado, aunque no pudo dar más explicaciones porque, lógicamente, acababa de tomar posesión del cargo. Ya han pasado más de seis meses desde entonces y el edificio sigue en la misma situación.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

- Zer dela eta ez du Donostiako Udal Gobernuak Guardaetxea eraberritzeko prozesuan aurrerapenik egin? Zein egoeratan dago Guardaetxeko lanak abiatzeko beharrezko baimenen tramitazioa? Noizko uste du Udal Gobernuak eskuratu ahal izango dituela baimenak? Zer egingo du Udal Gobernuak hori horrela izan dadin?

Donostian, 2024ko martxoaren 1ean

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia"

Es por ello por lo que el concejal abajo firmante presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

- ¿Cuál es el motivo por el que el Gobierno Municipal no haya realizado ningún avance en el proceso de reforma de la Casa del Guarda? ¿En qué situación se encuentra la tramitación de las autorizaciones necesarias para iniciar las obras en dicho edificio? ¿Para cuándo considera el Gobierno Municipal que podría obtener los permisos pertinentes? ¿Qué pasos va a dar el Gobierno Municipal para que esto se pueda cumplir?

Donostian, 2024ko martxoaren 1ean

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga

EH Bildu udal taldeko zinegotzia"

Carlos Garcia eta Markel Ormazabal jaunek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen los Sres. García Hernández y Ormazabal Gaztañaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

---------------

Eta bestelako aztergairik ez dagoela, batzordeburuak goiburuan adierazitako eguneko goizeko hamabiak eta hogei eta hamarrean bilkura amaitutzat jo du; eta NIK, idazkari gisa, horren guztiaren FEDE EMATEN DUT.

Y no habiendo más asuntos, el presidente declara terminada la sesión a las doce horas y treinta minutos de la fecha expresada en el encabezamiento; de todo lo cual, YO, EL SECRETARIO, DOY FE.

O.E./Vº Bº
BITARTEKO BATZORDEBURUA / EL PRESIDENTE EN FUNCIONES

Markel Ormazabal Gaztañaga